

III AURREOLINPIADA MATEMATIKOA

2. DBH-ko I eta II BURUKETAK


1) AMONA JOSEFINA

Medikuak nire amona Josefinari pneumonia diagnostikatu dio eta horregatik 120 kapsula hartzea bidali dio. Bi egun jarraituetan zehar, pilula bat hartu behar du eta ondoren egun bat deskantsatu behar du. Astelehen batean pilulak hartzen hasi bada:



- Zenbat aldiz hartu izanen ditu pilulak astelehenean eta asteartean jarraiturik?
- Zenbat aste iraun izanen ditu tratamenduak eta astearen zein egunetan bukatu izanen da?

2) BIHURGUNEZ BETERIKO LORATEGIA



Pedro geometria gustatzen zion lorezaina da. Bere azken diseinua, 16 metroko diametroa duen lorategi zirkularra, marrazkian adierazten den bezala, lau zatitan banatzea izan da.

Kalkulatu zati bakoitzaren azalera eta perimetroa.

Oharra: puntodun marrak zirkunferentziaren diametroa irudikatzen du.

Hurrengo atalak hartuko dira kontutan:

- Informazioaren erabilera eta ulermena.
- Ebazpenaren erraztasuna eta originaltasuna.
- Arrazonamenduaren argitasuna.
- Aurkezpena, ortografia akatsak eta garbitasuna.

ENTREGATZE DATA LIMITEA: MARTXOAREN 1.

III AURREOLINPIADA MATEMATIKOA

1. DBH-ko I eta II BURUKETAK


1.-KUTXA GOTORRA IREKITZEN

Julenek bere enpresaren kutxa gotorra ireki behar du eta horretarako nagusiari konbinazioa eskatzen dio. Honek, argibide hauek ematen dizkio:

1, 2, 3, 4, 5 eta 6 digitoak erabili ditzazkezu bakarrik.

Kutxa gotorraren kodea hau da: *abcdef*.

- *abc* zenbakia 4-ren multiploa da.
- *bcd* zenbakia 5-en multiploa da.
- *cde* zenbakia 3-ren multiploa da.
- *def* zenbakia 11-ren multiploa da.



Zein izango litzateke zenbaki kodea kutxa irekitzeko?


2.- FESTETAKO KARTELA

Auzoko hiru eguneko jaietarako, 5 dm-ko aldea duen kartel karratu bat disenatu behar dugu.

Kartelan, egun bakoitzari zati bat eman behar diogunez, honako segmentuak marraztuko ditugu: $AB = 10$ cm eta $ED = 15$ cm.

B puntua E puntuarekin elkartuko dugu eta A puntutik pasatzen den BE-rekiko paralela bat marraztuko dugu.

Kalulatu kartelan agertzen diren hiru zatien azalera.



Hurrengo atalak hartuko dira kontutan:

- Informazioaren erabilera eta ulermena.
- Ebazpenaren erraztasuna eta originaltasuna.
- Arrazonamenduaren argitasuna.
- Aurkezpena, ortografia akatsak eta garbitasuna.

ENTREGATZE DATA LIMITEA: MARTXOAREN 1.